

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



*Hipokrisia eta faxismoaren aurka.*  
Des-Kontrol.  
Baga Biga.  
Iraupena: 19'39".  
5,95 euro.

## Faxismoaren eta salaketa ustelen kontrako talde-lana

GOGORRA DA Arrasateko taldeak bizi izan duena. Norbaitzuk arrasatearrak faxistatzat hartu eta hori argitu beharrean, esamesak zabaldu eta Des-Kontrol eta jarraitzaileak luzaroan mehatxatu izan dituzte, defendatzeko aukerarik eman gabe. Taldekideek, arduratuta, zerbait egitea pentsatu zuten eta Fermín Muguruzak lagunduta, esames horiek ukatzeko diskoa egin dute. Are gehiago, Ferminek berak, El Drogasek,

Fernando Sapok, Garik, Xabier Silveira, Niko MCDk, zenbait futbol jokalaririk, Porrotzek eta beste askok esku hartu dute lanean. MCD, Specials eta Hertzainak taldeen bertsio banaz gain, taldearen hiru kantu ere aurki daitezke, punk melodikoa, punk-rock gogorra eta bestelako doinuak batuz. Hitzak, berriz, inoiz baino argiagoak dira, faxistak ez direla eta bakean uzteko aldarrikatuz.

### Markel Urrutia - Des-Kontrol

## «Gu benetan ezagutu gabe gure kontrako salaketak egin dituzte eta gure ikusleak jipoitu»

Dagoeneko isildu dira salaketa eta esamesak? Noiz konturatu zineten zerbait egin behar zenuela?

Mehatxuak eta jipoiak bai, baina esamesak ez. San Inazioko jaietan, Bilbon, konturatu ginen erantzun behar genuela. Hamabost bat tipo ikusleak bortizki mehatxatzen eta guri lorontziak botatzen, nahiz eta auzotarrak gure alde egon. Ezagutu gabe, ezin da salaketarik egin, eta hori egin dute, baita gure ikusleak jipoitu ere. Hainbeste kolaboratzaile ezagun izateak entzuleen profila zabaldu du?

Ez dut uste. Guk punk eta Oil-ean dugu oinarria, baina aurreko diskoan estiloa apur bat zabaldu eta punkarekin hain lotuta ez dagoen jende gazte ugari hurbildu zitzaigun. Disko honek promozioa egin digula? Ez gara horren bila joan, baina baliteke!



**Pakean utzi arte da orain arte abestu duzuen kanta politikoena?**

Ez da bakarra, beste kantu batzuk ere baditugu: *Freedom for my land*, *Altxa gaitzen*, *Euskadi es una nación* eta beste. Berez, skinhead ildoan murgilduta, politikaz paso egiten saiatzen ginen, baina Euskal Herrian oso zaila da hori, guztioi eragiten digulako.

**Makina lehertu arte kantak punk-hardcorearen ukitua dauka...**

Bai, ezta? Azken sasoiari bizi izan ditugun ezintasuna eragin digu eta uste dut hori gero eta gehiago antzemango dela egiten gabiltzan kantuetan. Era berean, gero eta musika gehiago entzuten dugu, eta halakoak ere gustuko ditugu.

**Orain buru-belarri zabilzate diskoa prestatzen?**

Berez diskoa iaz egin nahi genuen, baina salaketa eta mehatxu horiei aurre egiteko beste diskoa egin genuen tartean.

Aspaldian gogor entseatzen gabiltza eta asmoa da uda partean grabatzea. Taldeak hamahiru urte beteko ditu, hortaz abesti kopuru hori izango du lanak; eta ildo desberdinetako kantuek batuko ditugu: hardcorea, melodikoa, estilo klasikoak, akustikoa... Nahiko lan irekia izango da. ■